

## 7. Funtzesko baliabideak

Gure zerbitzuak funtziona dezan, hainbat elementuren beharra izango dugu, hauek enpresaren funtsezko baliabideak izango dira.

**Baliabide fisikoei** dagokienez, instalazioen beharra izango dugu, gure aplikazioaren sarea mantentzeko eta aplikazioaren datuak gordetzeko. Instalazio honetan, ordenagailuak eta zerbitzariak behar ditugu, sistema informatikoa ona izateko. Honekin batera, bulego bat alokatu behar dugu, gestio administratiboak kudeatu ahal izateko, eta gure zerbitzua erabiliko duten enprekin eta erakunde publikoekin bilerak aurrera eramateko.

Honekin batera beste baliabide fisiko batzuen beharra izango dugu, hala nola, telefono bat, bulegoko paperak, boligrafoak eta abar.

**Baliabide intelektualei eta giza baliabidei** dagokienez, Aimarren sormena eta talde kontrola, Hodeiren aplikazioak sortzeko eta interneten bidez bezero berriak bilatzeko abilezia, eta Xabierren negoziatzeko talentuaz baliatuko gara.

Horrekin batera, ideia patentatzen dugunean jabetza intelektuala izango dugu, gure markarekin batera.

*Park Phone* martxan jartzeko hasierako inbertsioa gure aurrezkiekin egingo da. Finantza baliabideak gure enpresaren mozkinekin finantziatuko dira, maileguekin batera.

Guk kooperatiba bat sortuko dugu, hirurok enpresaren langileak eta jabeak izango garelako. Azken finean, gure pentsamenduetara hobeto egokitzen den enpresa mota da, elkartasunean eta talde lanean sinesten dugu.